

2. EUSKADIKO TURISMO INDUSTRIAREN MUGAKETA

2.1. SARRERA

Turismo-sektorea, fakturazioari eta enpleguari lotutako zifrak kontuan hartuta, funtsezko sektore bihurtu da nazioartean zein Estatuan. Gainera, lehen esportazio-jardueretako bat da, kanpoko kontsumoa erakartzeko ahalmen handia baitu.

Hala ere, zaila da benetan duen indarra neurtzea. Izan ere, beste enpresa-jarduera batzuk ez bezala, *zeharkako sektorea* da, eta turismo-prozesuan kontsumitzen diren ondasunak eta zerbitzuak eta turismo-jarduerarekin zerikusirik ez duten beste ondasun batzuk produzitzen dituzten *hainbat jarduera-adarretako* enpresek osatzen dute (ikus hamargarren orrialdeko irudia). Desberdinak baina osagarriak diren iturrietako datuak bereizi eta bateratu beharra dela-eta, turismoaren kontu satelite izenekoa landu behar da. Espainian, kontu horren lehen bertsioak urteko datuak ematen ditu 1996. urtetik aurrera, Kontabilitate Nazionalaren metodologiari jarraiki. Euskadin, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundeak) landutako *EAEko turismoaren kontu satelitea 2000-2004* argitaratu da duela gutxi. Lan hori egiteko, honako erreferentzia metodologiko hauek erabili dira:


- «Cuentas Satélite de Turismo, Referencias Metodológicas (CST-RM)» dokumentua, Nazio Batuen Estatistika Batzordeak 2000ko otsailean onartua eta ELGA, MTE eta EUROSTAT erakundeek babestua, eta
- Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) Espainiako Turismoaren Kontu Satelitea (1995-2003ko kontabilitate-seriea) lantzeko garatu dituen eta Turismoaren Kontu Satelitearen erreferentziazko nazioarteko metodologiak Espainiako kasura egokitu dituzten eskuliburu metodologikoak.

Turismo kontzeptuan, jendeak ohiko inguruneaz bestelako lekuetara egindako bidaietan eta egonaldi-tan urtebetetik beherako aldi batean eta hainbat *arrazoirengatik* egiten dituen jarduera guztiak sartzen dira. Nazio Batuen gomendioei jarraiki, sei multzotan bana daitezke: aisia, olgeta eta oporrak; bisitaldiak senitartekoei eta adiskideei; negozioak eta arrazoi profesionalak; osasun-tratamenduak; erlijioa eta erromesaldiak; eta beste motibazio batzuk. EAEn, lehen hiru motibazioak dira nagusi. Gainera, bi turismo mota daude, bidaiaren arazoia dela-eta Euskadin gaua ematen den ala ez kontuan hartuta. Bigarren kasuan, *txangozaleak* ditugu. Fenomeno garrantzitsua da kuantitatiboki, eta eragin ekonomiko handia du, neurtzeko zailagoa bada ere.

Turistek ondasunetan eta zerbitzuetan egindako *gastuaren* ikuspegitik, honako kategoria handi hauek bereizten dira:

- Alojamentua.
- Jatetxeak.
- Garraioa.
- Ondasunak erostea.
- Beste produktu eta zerbitzu batzuk, hala nola kultura- eta kirol-ikusketak, ibilgailuen alokairua, bidai-agentzien komisioak eta abar.

Euskadiko turismo-industriaren osagaiak



2.2. EAEko TURISMOAREN MAGNITUDE EKONOMIKO NAGUSIAK

EAEko Turismoaren Kontu Satelitea 2000-2004 (aurrerantzean TKS-EAE) dokumentuaren datuen arabera, EAEn egindako turismo-gastua 2.786 milioi eurora iritsi zen 2004an eta, beraz, %5,2ko ekarpena egin zion BPGari¹.

Turismo-gastuaren erdia baino gehiago (%55,6) EAetik kanpoko bisitariak sortu zuten (turistek eta txangozaleek); gainerako %44,4, berriz, EAEn bertan bizi diren turistek eta txangozaleek sortutako gastua eta turismo igorleak jatorrian bertan egindako gastua da, hau da, bertan bizi direnek turismo-arrazoiak direla-eta bidaiatzean egindako gastua (bidaia-agentzietan eta garraio-agentzietan nagusiki).

Datuak ikusita, euskal turismoaren ekonomiak eta gastuak 2000-2004 aldiaren amaieran eman dituzten zifrak oso positiboak dira eta bien dinamismo handia islatzen dute. Are gehiago, turismo-gastuaren urteko metatze-hazkundera %7,8ra iritsi da aldi horretan (euskal BPGaren %6,2tik gora). Horrela, beraz, turismo-

¹ Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza eta Turismo Sailak 1997an argitaratutako *Turismoaren IO taulak, EAE-1994* dokumentuaren arabera, turismoak BPGari egindako ekarpena %3,3 izan zen 1994an, baina barneko eta Estatuko txangozaletasuna kontuan hartu gabe.

gastuak euskal ekonomiari egindako ekarpenaren goranzko joera berretsi da (sortutako BPGaren %5 baino gehiago da). Hala ere, 2003tik 2004ra bitarte beherakada txiki bat izan da, jarduera ekonomiko osoaren dinamismo erlatibo handiagoaren ondorioz.


Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena.
BPGaren gaineko ehunekoa eta balioa. 2000-2004 (milioi euro)

	2000	2001	2002	2003	2004(a)
Turismo-gastua, guztira (milioi euro)	2.062	2.101	2.320	2.610	2.786
Turismo hartzailea	1.124	1.103	1.271	1.481	1.548
Turismoaren beste osagai batzuk	938	998	1.049	1.129	1.238
Turismo-gastua, guztira (%)					
Turismo hartzailea	54,5	52,5	54,8	56,8	55,6
Turismoaren beste osagai batzuk	45,5	47,5	45,2	43,2	44,4
BPGaren (mp) gaineko ehunekoa					
Turismo hartzailea	2,7	2,5	2,7	3,0	2,9
Turismoaren beste osagai batzuk	2,2	2,2	2,3	2,3	2,3
Turismo-gastua, guztira/BPG	4,9	4,7	5,0	5,3	5,2

(a): aurrelaburpena. Prezio arruntak.

Iturria: EUSTAT, TKS-EAE (Oinarria: 2000).

Turismo-gastuaren eta BPGaren bilakaera.
EAE (2000-2004)



Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta TKS-EAE.

Lurralde-ikuspegitik, euskal turismoaren tradizioaren zati handi bat historikoki Gipuzkoan eta itsasbazter osoan oinarritu da, baina turismo-jardueraren bilakaera lurraldeen arabera aztertuz gero, «barne-indarrek» neurri batean gora egin dutela eta Bizkaiaren egoera batez beste hobea dela ikus daiteke.

Logikoa den bezala, turismo-jarduerak lurralde bakoitzean duen garrantzia jarduera horri esleitutako gastuaren emaitza ez ezik, ekonomiaren tamainaren emaitza ere bada. Zehazki, Araban eta Bizkaiaren ehu-

**Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena,
Lurralde Historikoaren eta urtearen arabera**

	2000	2001	2002	2003	2004(a)
Turismo-gastua, guztira (milioi euro)					
Araba	304	320	330	359	391
Bizkaia	789	797	868	997	1.092
Gipuzkoa	969	984	1.122	1.254	1.303
EUSKADI	2.062	2.101	2.320	2.610	2.786
Turismo-gastua, guztira (%)					
Araba	14,8	15,2	14,2	13,8	14,0
Bizkaia	38,2	38,0	37,4	38,2	39,2
Gipuzkoa	47,0	46,8	48,4	48,0	46,8
EUSKADI	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
BPGaren (mp) gaineko ehunekoa					
Araba	4,3	4,4	4,3	4,4	4,4
Bizkaia	3,7	3,6	3,7	4,0	4,0
Gipuzkoa	7,0	6,7	7,3	7,7	7,5
EUSKADI	4,9	4,7	5,0	5,3	5,2

(a): aurrelaburpena. Prezio arruntak

Iturria: EUSTAT, TKS-EAE (Oinarria: 2000) eta Kontu Ekonomikoak.

neko hori oso antzekoa da (%4 inguru). EAeko emaitza Gipuzkoak egindako ekarpenari dagokio (bereziki esanguratsua lurralde horretan). Gipuzkoan sortutako BPGaren %7,5 da.

Turismo-gastuaren osaerari dagokionez, barneko turismo-gastuaren %80 inguru turismo-produkzioaren gune nagusiak osatzen du (produktu bereizgarriek). Horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira: alojamentu-zerbitzuak, guztizko turismo-gastuaren %23rekin (%16 1994an), jatetxeak, %21,4rekin (%27 1994an) eta, neurri txikiagoan, garraioa eta horri erantsitako zerbitzuak, %34,6rekin².

Horri dagokionez, EAeko turismo-gastuaren osaeran garrantzi handia duten honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Mugarekiko hurbiltasuna. Helburu ludiko eta merkataritza-helburu nabarmena duten eta mugatik 30 kilometroko inguru batean geratzen diren txangozale ugari erakartzen ditu horrek.
- Tamaina eta eskualde igorle izatea. Hori dela-eta, aire-garraioak ia ez du baliorik turismo har-tzailearen kasuan; familien turismo-kontsumoaren balioa, berriz, oso handia da (turismo igorleak ja-torrian bertan egindako gastu gisa).

² TKS-EAE 2000-2004 txostenean jasotako azterketa 2000. urtera mugatzen da puntu horretan. Nolanahi ere, honako hau dio: *hala ere, ez dirudi gastuaren banaketa hori azken lau urteetan asko aldatu denik.*

- Azkenik, ez da ahaztu behar egonaldi laburretako turismoaren —asteburuko turismoaren zein negozio-turismoaren— indar handia. Ibilgailu propioa erabiltzen denez gero, beste garraio-bideen garrantzi erlatiboa txikiagoa da.

Barneko turismo-kontsumoa, produktuen eta osagaien arabera
Prezio arruntak (mila euro). 2000

	Turismo-kontsumo hartzailea	Familien turismo-kontsumoa	Bitarteko turismo-kontsumoa	EPek turismo-kontsumoan egindako gastua	Barneko turismo-kontsumoa, guztira	%
Alojamendu-zerbitzuak	423.303	104.593	26.613	0	554.509	23,0
Hotelak eta antzekoak	315.531	8.751	26.308	0	350.590	14,6
Higiezin alokairurako zerbitzuak	107.772	95.842	305	0	203.919	8,5
Jatetxeak eta antzekoak	306.238	131.245	77.767	0	515.250	21,4
Bidaia-erakundeak	2.389	217.224	137.675	0	357.289	14,8
Lehorreko garraioa	539	89.821	1.906	0	92.266	3,8
Trenbideko garraioa	1.342	35.805	1.633	0	38.780	1,6
Itsasoko garraioa	508	5	0	0	513	0,0
Aireko garraioa	0	91.593	134.136	0	225.729	9,4
Bidaia-agentziak	0	165.900	125.170	0	291.070	12,1
Garraioari erantsitako beste zerbitzuak	5.198	46.784	113.831	0	165.813	6,9
Ibilgailuen alokairua	17.168	904	0	0	18.072	0,8
Jolas- eta kultura-jarduerak	30.212	7.553	0	0	37.765	1,6
EPen merkatuaz kanpoko turismo-zerbitzuak	0	0	0	12.254	12.254	0,5
Produktu ez-bereizgarriak, guztira	784.509	674.203	481.056	12.254	1.952.022	81,1
Ondasunak	162.078	69.462	0	0	231.540	9,6
Ondasunen banaketa-marjinak	89.940	38.198	347	0	128.485	5,3
Beste zerbitzu batzuk	67.413	24.115	4.777	0	96.305	4,0
Produktu ez-bereizgarriak, guztira	319.431	131.775	5.124	0	456.330	18,9
Produktzioa, guztira (oinarrizko prezioak)	1.103.940	805.978	486.180	12.254	2.408.352	100,0

Iturria: EUSTAT, TKS-EAE (Oinarria: 2000).

Aurreko taulan jasotako kontsumo-bektore bakoitzak turismoaren produkzio bereizgarriari eta bereizgarria ez denari dagokionez duen barne-osaeraren ikuspegitik, gastu-eredu desberdinei lotutako zehaztasun interesgarriak egin daitezke. Honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- *Turismo-kontsumo hartzailearen* bektoreak %71,1eko eta %28,9ko banaketa agertzen du turismoaren produktu bereizgarriari eta bereizgarriak ez direnei dagokienez, hurrenez hurren. «Muga» efektuaren garrantzia uzten du agerian, funtsean ondasunei (%14,7), ondasunen banaketa-marjinei (%8,1) eta beste zerbitzu batzuei (%6,1) lotutako epigrafeen ekarpenari dagokionez. Bestalde, hotel-establezimenduetan egindako gastuari lotutako zenbatekoa azpimarratu behar da (%28,6%)³.

³ Estatuko beste ingurune batzuetan ez bezala, nazioarteko zirkuituetan alokairuan jartzeko oporretako etxebizitzaren parkea oso urria da EAEn. Bigarren egoitza (jabetzan edo alokairuan) egoiliarrek eta Estatuko beste pertsona batzuek (autonomia-erkidego mugakideetakoek batez ere) erabili ohi dute.

Produkzioa, produktu bereizgarrien eta ez-bereizgarrien eta turismoko jarduera-adar bereizgarrien eta ez-bereizgarrien arabera (EAE-2000. Mila euro)

	Jarduera-adar bereizgarriak	Jarduera-adar ez-bereizgarriak	Produkzioa, guztira
Hotelak eta antzekoak	356.508	1.262	357.770
Turistikoa	350.590	0	350.590
Ez-turistikoa	5.918	1.262	7.180
Higiezin alokairurako zerbitzuak	5.327.532	164.384	5.491.916
Turistikoa	203.919	0	203.919
Ez-turistikoa	5.123.613	164.384	5.287.997
Jatetxeak eta antzekoak	2.629.092	27.790	2.656.882
Turistikoa	524.690	0	515.250
Ez-turistikoa	2.113.842	27.790	2.141.632
Lehorreko garraioa	353.438	172.562	526.000
Turistikoa	89.237	0	89.237
Ez-turistikoa	264.201	172.562	436.763
Trenbideko garraioa	172.913	0	172.913
Turistikoa	26.819	0	26.819
Ez-turistikoa	146.094	0	146.094
Itsasoko garraioa	100.261	36.168	136.429
Turistikoa	513	0	513
Ez-turistikoa	99.748	36.168	135.916
Aireko garraioa	109.595	0	109.595
Turistikoa	76.990	0	76.990
Ez-turistikoa	32.605	0	32.605
Bidaia-agentziak	291.070	0	291.070
Turistikoa	291.070	0	291.070
Ez-turistikoa	0	0	0
Garraioari erantsitako beste zerbitzu batzuk	2.419.011	34.756	2.453.767
Turistikoa	165.132	681	165.813
Ez-turistikoa	2.253.879	34.075	2.287.954
Ibilgailuen alokairua	41.342	220.966	262.308
Turistikoa	18.072	0	18.072
Ez-turistikoa	23.271	220.966	244.236
Jolas- eta kultura-jarduerak	837.296	82.101	919.397
Turistikoa	36.123	1.642	37.765
Ez-turistikoa	801.173	80.459	881.632
EPen merkatuaz kanpoko turismo-zerbitzuak	0	12.254	12.254
Turistikoa	0	12.254	12.254
Ez-turistikoa	0	0	0
Produktu bereizgarriak, guztira	12.638.058	752.243	13.390.301
Turistikoa	1.773.715	14.577	1.788.292
Ez-turistikoa	10.864.344	737.665	11.602.009
Ondasunak	11.630	47.669.729	47.681.359
Turistikoa	114	231.426	231.540
Ez-turistikoa	11.516	47.438.303	47.449.819
Márgenes de distribución de bienes	4.821	5.685.545	5.690.366
Turistikoa	263	128.222	128.485
Ez-turistikoa	4.558	5.557.323	5.561.881
Beste zerbitzu batzuk	152.849	20.302.833	20.455.682
Turistikoa	24.951	71.354	96.306
Ez-turistikoa	127.898	20.231.478	20.359.376
Produktu ez-bereizgarriak, guztira	169.300	73.658.107	73.827.407
Turistikoa	25.329	431.002	456.331
Ez-turistikoa	143.971	73.227.105	73.371.076
Produkzioa, guztira (oinarrizko prezioak)	12.807.358	74.410.350	87.217.708
Turistikoa	1.799.043	445.579	2.244.622
Ez-turistikoa	11.008.315	73.964.771	84.973.086

Prezio arruntak.

Iturria: EUSTAT, TKS-EAE-2000.

Bestalde, azpimarratu beharra dago jatetxeei eta antzekoei lotutako gastuaren garrantzia. Eskaintza gastronomikoa erakarpen-faktorea da zenbaitetan eta, gainera, mugaz gaindiko txangozaleek egindako gastuaren ekarpen handia jasotzen du.

- *Familien turismo-kontsumoa* bektorearen osarari dagokionez, bi datu azpimarratu behar dira. Lehenik eta behin, garraio-gastuaren ehunekoak duen garrantzia (%27). Logikoa den bezala, euskal kontsumitzaileek bertan egindako gastuari lotuta dago neurri handi batean. Bestalde, eta bigarren bizilekuen sareari jarraiki, alojamendu pribatuaren gastu-ekarpena (%11,9) eta jatetxeei eta antzekoei lotutakoa (turismo-portaera eta barne-txangozaletasuna konbinatzen dituen, %16,3) azpimarratu behar dira.
- Azkenik, *bitarteko turismo-kontsumoa* bektoreak EAEn finkatutako agente ekonomikoek EAEn bertan egiten duten eta agente horien jarduera ekonomikoan sartuta dagoen gastua eta gastu-patroia adierazten du. Hau da, euskal enpresek EAEn bertan egindako negozio-jarduera dela-eta egiten duten kontsumoa da. Kasu horretan, zerbitzu-hornitzaileei (hala nola bidaia-agentziei) eta aireko garraioari lotutako kontsumoak garrantzitsuak dira. Halaber, produktu ez-turistikoei lotutako gastuaren garrantzi txikia azpimarratu beharra dago.

Turismoak EAEn duen *hedatze-efektuari* dagokionez, kontsumitutako ondasun eta zerbitzu guztiak ez dira turismo-industriari lotuak. Izan ere, alde zuzenetik turistikotzat hartu ezin diren beste ondasun batzuk ere kontsumitzen dira.

**Turismoak euskal BPGari egindako ekarpena eta turismoaren osagaiak:
zuzeneko ondorioak eta guztizko ondorioak.
Prezio arruntak (milioi euro) 2000**

	Zuzeneko ondorioak	BPGaren gaineko %	Guztizko ondorioak	BPGaren gaineko %
BPGari egindako ekarpena (eskariaren arabera merkatu-prezioak)	2.062	4,9	2.062	4,9
Familia egoiliarren gastua, azken kontsumoa	924	3,8	924	3,8
FIAGE/EPen gastua, azken kontsumoa	12	0,2	12	0,2
Kapitalaren eraketa gordina	2	0,0	2	0,0
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	1.308	4,6	1.308	4,6
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	184	0,7	184	0,7
BPGari egindako ekarpena (eskaintzaren arabera merkatu-prezioak)	1.236	2,9	2.062	4,9
BEG, oinarritzko prezioak	1.122	3,0	1.844	4,9
Produktuen gaineko zergak	114	2,7	219	5,2
Produktzioa	2.408	2,8	4.500	5,2
Enplegua (lanpostuak)	28.701	3,2	44.436	4,9

Iturria: EUSTAT, TKS-EAE-2000.

Turismoaren Kontu Satelitearen zentzua, hain zuzen ere, turismo-gastuaren ondorioen neurketak ematen duen eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka da. Eskariaren ikuspegitik, turismo-gastuak⁴ BPGa

⁴ Jatorria eta helmuga EAEn bertan dituen negozioen turismo-kontsumoa deskontatuta, kontsumo hori bitarteko eskarian sartuta baitago.

sortzen du eta magnitude hori bat dator eskaintzatik egindako hurbilketarekin. Taulan jasotako emaitzak ikusita, honako irakurketa hau egin daiteke⁵:

- EAEn egindako turismo-gastua 2.062 milioi eurora iritsi zen 2000. urtean.
- Horretarako, zuzenean inplikaturako eskaintzak (produktu bereizgarriez hornitzen duen turismo-industriak eta produktu ez-bereizgarriei lotutakoak) 2.408 milioi euroko produkzioa lortu zuen, hau da, EAEn urte horretan egindako guztizko produkzioaren %3. Gainera, 28.701 lagunentzako enplegua lortu zuen (EAeko guztizko enpleguaren %3,2).
- Hala ere, produkzio horrek atzerako hedatze-efektua du (hornitzaileak eta abar), eta jatorrizko 2.062 milioi euroko eskariak 4.500 milioi euroko guztizko produkzioa eskatzen du.
- Azken emaitza gisa, 2000. urtean EAeko turismo-gastuak euskal BPGaren %4,9 sortu duela esan daiteke. Zehazki, %2,9 zuzeneko ondorioa da, eta %2 zeharkako ondorioa. Nolanahi ere, zeharkakotasuna eta jardura osoan hedatzeko ahalmena uzten du agerian.

Turismo-industria: establezimenduen banaketa, osagaien, urtearen eta soldatapekoen kopuruaren arabera (2004)

	Enplegu-estratuak						Guztira
	3 baino gutxiago	3 - 5	6 - 9	10 - 14	15 - 49	50 baino gehiago	
Hotelak eta antzekoak	552	132	49	58	53	15	859
Higiezinaren alokairurako zerbitzuak	4.530	421	56	44	5	2	5.058
Jatetxeak eta antzekoak	10.199	2.729	680	321	79	12	14.020
Tren bidezko garraioa	13	23	6	6	3	7	58
Lehorreko garraioa	2.199	86	40	25	22	11	2.383
Itsasoko garraioa	8	6	3	1	2	4	24
Aireko garraioa	3	3	3	1	3	1	14
Bidaia-agentziak	341	227	34	21	1	1	625
Garraioari erantsitako beste zerbitzu batzuk	46	24	19	23	10	11	133
lbigailuen alokairua	82	21	4	2	1	0	110
Jolas- eta kultura-jarduerak	2.490	378	151	100	73	22	3.214
Turismo-jarduerak, guztira: establezimendu kopurua	20.463	4.050	1.045	602	252	86	26.498
Turismo-jarduerak, guztira: banaketa (%)	77,2	15,3	3,9	2,3	1,0	0,3	100,0
Jardura ez-turistikoak, guztira: establezimendu kopurua	109.839	20.302	7.173	5.911	3.614	2.075	148.914
Turismo-jarduerak, guztira: banaketa (%)	73,8	13,6	4,8	4,0	2,4	1,4	100,0
Jarduerak, guztira: establezimendu kopurua	130.302	24.352	8.218	6.513	3.866	2.161	175.412
Turismo-jarduerak, guztira: banaketa (%)	74,3	13,9	4,7	3,7	2,2	1,2	100,0

Iturria: EUSTAT, JEGID.

⁵ 2000. urteko ekitaldia. TKS-EAE azterlanaren arabera, ez dirudi sortutako ondorioak denborarekin aldatuko direnik (funtsean, produkzioaren eta sektoreen arteko erlazioaren koefizienteak aldatzen dituzten shock teknologikoek ez dute eragin handiegirik gastuaren muinean).

- Azkenik, azpimarratu beharra dago turismo-gastu osoak 44.436 lagunentzako enplegua eskatzen duela (Euskadiko guztizko enpleguaren %4,9).

Azkenik, turismo-sektorea «industriatzat» hartuta, Espainiako turismo-industriaren egituraren kasuan ez bezala (ez baitio «eguzkiaren eta hondartzaren» eskari masiboari erantzun behar), ostalaritza-sektoreen ezaugarri nagusiak goi-mailako segmentuen indar handia eta ospe handiko jatetxe-zerbitzuen garrantzi handia dira. Turismo-eskaintza horren inguruko enpresa-sarean dimentsio txikia da nagusi, erantsitako taulan ikus daitekeenez (eta, bereziki, jatetxeen eta antzekoen eta bidaia-agentzien jarduera-adarretan). Tamaina handieneko enpresak, berriz, hotelen sektorean eta garraioaren sektorean daude.